



HIKAGIN

[AZKOITIKO EMAITZAK]

ITZIAR SAPSOOTHAM

AURKIBIDEA

HIKAGIN EGITASMOA	2
INKESTAREN EMAITZAK AZKOITIAN	4
AZKOITIKO LAGINA.....	4
HITANOARI BURUZKO IKUSPEGIA AZKOITIAN	7
HITANOAREN EGOERA	7
HITANOAREN FAMA ETA IRUZKIN NEGATIBOAK.....	11
TOKAREN ETA NOKAREN EGOERA	14
HITANOAREN TRANSMISIOA.....	17
HITANOA BIZIBERRITZEKO EKIMENAK.....	18
ESPERIENTZIA PERTSONALA HITANOAREKIN	19
HITANOAREN ERABILERA ETA EZAGUTZA-MAILA.....	19
TOKAREN ETA NOKAREN ERABILERA HIKA-HIZTUNEN ARTEAN	22
NORI EGITEN ZAION HIKA.....	24
ERABILERA-OHITURAK: ARAUAK ERRESPETATZEN DIREN	27
ONDORIOAK.....	28
ERANSKINAK	30
ERANSKINA I	30
ERANSKINA II	36
ERANSKINA III	46
ERANSKINA IV	49
ERANSKINA V	51
ERANSKINA VI.....	53

HIKAGIN EGITASMOA

Hikagin egitasmoaren helburu nagusia **hitanoa biziberritzea** da, bereziki noka, euskararen normalizatorako. Hitanoa tresna paregabea da kalean eta lagunartean erabiltzeko, hizkuntzari freskotasuna eta adierazkortasuna ematen dion hizkera informala delako. Nahiz eta ikastetxeetan euskaraz ikasi, gazte askok kalean erdarara jotzen dute bat-batekotasun, adierazkortasun eta informaltasun bila: gazte-hizkera baten bila. Euskarak berezkoa duen hizkera informala, berriz, gainbehera joan da azken hamarkadetan. Udalerrri euskaldunenetan mantendu da ondoen, eta horietan ere galduz doa. Horregatik, gure asmoa euskaldunen artean, bereziki gazteen artean, hitanoaren erabilera areagotu eta sendotzea da, hizkuntza-ohiturak aldatu eta hiztunak aktibatzea. Batetik, Euskal Herri mailako Hikagin sarea sortzen ari gara eta, bestetik, herri batzuetan ekintzak eta jarduerak egiten, hikadunak sortzeko eta aktibatzeko.

Egitasmoaren lehenengo fasean **Euskal Herri mailako inkesta¹** bat prestatu genuen, hitanoa bizirik dagoen herrietan egoera zein den aztertzeko. Inkestak bi atal ditu: lehenengo zatian herrian herriko hitanoari buruzko galderak datoz (herriko egoera zer nolakoa den) eta bigarrean hitano-hiztunaren esperientzia pertsonalari buruzkoak (ezagutza-maila, nola ikasi duen, zenbat erabiltzen duen...). Bigarren zatia hitano-hiztunek bakarrik bete zuten. Guztira **4.215 erantzun** jaso genituen eta horietatik 2.674 pertsonak (% 63,4k) bigarren zatia ere bete zuten. Hitanoaren egoerari eta erabilerari buruz egindako orain arteko datu-bilketa handiena izan zen. Guztira Euskal Herriko **287 herritako² erantzunak** jaso ziren: Gipuzkoan 88 herritakoak, Bizkaian 87, Nafarroan 70, Iparraldean 39 eta Araban 3. Aipatzekoa da Gipuzkoako ia udalerrri guztietatik jaso zela erantzunen bat. Gainera, mapan³ ikus daitekeenez, Gipuzkoako eta Arabako udalerrri euskaldun guztietatik jaso ziren erantzunak; gutxien, berriz, Zuberoatik, nahiz eta han ere hitanoa bizirik egon.

2022ko azaroan hasi ginen inkesta prestatzen eta abenduan zabaldu genuen. Ondoren, jasotako erantzunen lehenengo azterketa egin genuen: *Hikagin inkestaren emaitzak. Hitanoaren erabileraren ikuspegi orokorra*. Azterketa hori Badihardugu euskara elkartearen [webgunean](#) kontsulta daiteke. 2023an zehar datuen azterketarekin jarraitu genuen eta bigarren txosten bat prestatu. Lehenengo txostenean egoera orokorraren azterketa egin genuen eta, bigarrean, berriz, Udalerrri Euskaldunena (UEMAren eta Gaindegiaren arabera), hau da, euskararen arnaguneena. Gure helburu nagusienetako bat hitanoa bizirik dagoen herrietako informazioa biltzea izan da, batetik, egoera nolakoa den jakiteko eta, bestetik, hitanoa biziberritzen saiatzeko, bizirik ez dagoen tokietan zailagoa delako berreskuratzea.

Gipuzkoatik jaso dira erantzunen % 73,8 (3000 erantzunetik gora) eta Azkoitia izan da parte-hartzaile gehien izan dituen herria 305 erantzunekin. Hau da, biztanleria⁴ osoaren % 2,5ek hartu du parte eta euskaldunen⁵ % 3,5ek.

¹ Eranskina I: Hikagin egitasmoaren inkesta, osorik.

² Eranskina II: Inkestan parte hartu duten herrien zerrenda

³ Eranskina III: Herrikako partaidetza erakusten duen mapa eta udalerrri euskaldunen zerrendak, UEMA eta Gaindegiaren arabera.

⁴ 11.936 biztanle 2023ko urtarrilaren 1ean. EUSTAT.

⁵ 2021eko biztanleriaren % 76,12. EUSTAT.


UROLA ERDIA ETA AZKOITIA

Azkoitia Urola Erdian kokatzen da eta, bertan, udalerri guztiak dira euskaldunak, UEMaren eta Gaindiegiaren zerrenden arabera. Guztietatik jaso dira erantzunak:

- Azkoitia: 305 erantzun
- Azpeitia: 140 erantzun
- Errezil: 24 erantzun
- Zestoa: 20 erantzun
- Beizama: 5 erantzun

Txosten honen helburua Azkoitiko parte-hartzaileek hitanoaren egoeraren inguruan duten pertzepzioa ezagutzea da eta, horretarako, Euskal Herriko eta Udalerri Euskaldunetako datuak erabili dira, konparazioak egiteko.

1. irudia: Herriko partaidetza Hikagin inkestan (2023):



INKESTAREN EMAITZAK AZKOITIAN


AZKOITIKO LAGINA

Inkesta bi zatitan banatuta dago. Lehenengoan, herrian hitanoaren egoera orokorra zein den jakiteko prestatutako galderak datoz eta, bigarrenean, berriz, hitano-hiztunaren esperientzia pertsonalari buruzkoak. Beraz, bigarren zati hau bete ahal izateko, beharrezkoa da parte-hartzailea hika-hiztuna izatea. Azkoitik guztira 305 erantzun jaso dira eta horietatik 277k bete dute bigarren zatia. Hortaz, parte-hartzaileen % 90,82k hitanoa erabiltzen du.

Parte-hartzaileen adina, sexua eta profila

Adin-tarte guztietako herritarrek bete dute inkesta⁶ Azkoitian. 20 urtetik beherakoen artean jaso dira erantzun gehien (% 29), eskoletan ere hedapena izan zuelako inkestak; ondoren, 40-50 urte artekoetan, % 22ko partaidetzarekin; 20-30 urte bitartekoek, 30-40koek eta 50-60koek % 15eko partaidetza izan dute; 60-70 urte bitartekoek % 7; eta, azkenik, 70 urtetik gorakoek gutxien (% 2). Nahiz eta hitanoa gehien erabiltzen dutenak adinekoak izan ohi diren, kontuan izan behar da inkesta eskuko telefonotik edo ordenagailutik bete behar zela; ondorioz, adinekoen partaidetza txikiagoa izatea ez da harrizkoa.

2. irudia: Hikagin inkestaren partaidetza Azkoitian, adinaren arabera, ehunekotan (2022):




⁶ Inkestan parte-hartu dutenen adin-tarteen datu gordinak:

Adin-tartea	Kopurua
<20	89
20-30	46
30-40	46
40-50	68
50-60	47
60-70	7
>70	2


Hikagineko lehenengo azterlanean jaso ziren Euskal Herriko datuekin alderatuz, ezberdintasun nabarmena dagoela ikus daiteke, Azkoitian 20 urtetik beherakoen artean egon den parte-hartzea dela eta. Adin-tarte hori kenduz gero, ordea, datuak nahiko parekatuta daudela ikus daiteke, nahiz eta Azkoitian 60 urtetik gorakoen partaidetza Euskal Herriko datu orokorretakoa baino nabarmen baxuagoa den, eta 20-30 urtekoena, altuagoa.

3. irudia: Hikagin inkestaren partaidetzaren konparazioa Azkoitian eta Euskal Herrian, adin-tarteka eta ehunenekotan. (2022):



Noka toka baino gutxiago erabiltzen dela ikusita, inkesta bete dutenak gizonetzkoak ala emakumezkoak diren jakin nahi izan dugu. Genero jakin batekin identifikatzen ez diren pertsonak ere badirela kontuan izanik, galdera beste era batera planteatu dugu: "Zuri nola zuzentzea nahiko zenuke? Noka ala toka?". Suposatuz dugu "noka" erantzun dutenak emakume sentituko direla eta "toka" erantzun dutenak gizonetzko, salbuespenen bat ere egon daitekeen arren.

4. irudia: Erantzun dutenek beraiei nola zuzentzea nahi duten, ehunenekotan (2022):



Hitanoa gizonetzkoen artean zabalduago egon arren eta hitano-hiztun gizonetzko askoz gehiago egon arren, emakume sentitzen direnek interes handiagoa erakutsi dute inkestarekin: bete dutenen % 61 izan dira (186). Euskal Herri mailan⁷ ere datuak berdintsuak izan dira.

⁷ Euskal Herriko erantzun orokorretan parte-hartzaileek egindako aukera:

	Kopurua	%
Noka	2471	59
Toka	1732	41


Inkesta osorik bete dutenei begiratzuz, gehiago dira emakumezkoak gizonezkoak baino (% 22 gehiago) eta parte hartutakoen proportzio bera mantentzen da. Euskal Herri mailan, ordea, orokorrean emakumezkoen partaidetza handiagoa izan arren, bigarren zatia (hau da, hitano-hiztunei zuzendutakoa) gizonezko gehiagok bete zuten (% 2,2 gehiago).

5. irudia: Inkesta zenbateraino bete den Euskal Herrian eta Azkoitian, generoaren arabera eta ehunekotan (2022):

	Emakumezkoak		Gizonezkoak	
	Euskal Herria	Azkoitia	Euskal Herria	Azkoitia
Parte-hartzaileak (1. zatia)	2.471 (% 59)	189 (% 61)	1.732 (% 41)	119 (% 39)
Hitano-hiztunak (1. eta 2. zatiak)	1.307(% 48,9)	169 (% 61)	1.367(% 51,1)	108 (% 39)

Erantzun dutenen profila jakiteko, kaletarrak, baserritarrak edo nahasketa bat (gurasoak edo gurasoetako bat baserritarra izatea) diren ere galdetu dugu, hitanoa tradizioz baserri-giroan hobeto mantendu delako. Parte-hartzaile gehienak kaletarrak izan dira (% 84) eta inkesta bete dutenen ia % 91 hitano-hiztuna denez (inkestaren bigarren zatia bete dutenak), Azkoitian herrigunean hika bizirik dagoela esan daiteke.

6. irudia: Azkoitiko parte-hartzaileen profila, ehunekotan (2022):



HITANOARI BURUZKO IKUSPEGIA AZKOITIAN


HITANOAREN EGOERA

Inkestaren emaitzen arabera, hitanoaren egoera hobea da udalerrri euskaldunetan Euskal Herri osoan baino (7. irudia). Udalerrri euskaldunetan, inkesta bete dutenen % 64k uste du hitanoaren egoera ona edo erdipurdikoa dela bere herrian, nahiz eta bigarren hori den gailentzen dena. Datu orokorrak kontuan hartuta, ordea, pertzepzio hori dutenak % 44 bakarrik dira.

Euskal Herri osoko erantzunak kontuan hartuta, % 28k uste du hitanoa desagertzeko zorian dagoela, udalerrri euskaldunetan baino aski gehiagok (% 12). Hala ere, aldea ez da hainbestekoa hitanoa herrian desagertuta dagoela erantzun dutenen artean. Udalerrri euskaldun batzuetan hitanoa erabat galduta dagoela erantzun dute, nahiz eta herri bereko batzuek galzorian dagoela adierazi (adibidez, Lekeition edo Ondarroan). Gipuzkoako kostaldean ez bezala, Bizkaiko kostaldeko herrietan hitanoa ez dago bizirik.


Azkoitian egoera nahiko ezberdina da, % 95en ustetan hitanoa egoera onean (% 40) edo erdipurdikoan (% 55) dagoelako eta ez dagoelako hitanoa desagertzeko zorian edo desagertuta dagoen sentipenik. Udalerrri euskaldunen sarearen parte izanik, hitanoaren egoera orokorra gainontzeko herri euskaldunetan baino hobea dela Azkoitian ikus daiteke.

7. irudia: Hitanoaren egoera Azkoitian, udalerrri euskaldunetan eta Euskal Herrian, ehunekotan (2023):



Mapa⁸ batean islatu dugu parte-hartzaileen pertzepzioaren arabera zein den hitanoaren egoera udalerrri euskaldunetan, eta bertan Urola Erdiko herrien egoera ere ikus daiteke. Azkoitian eta Zestean erdipurdikoa litzateke egoera, batez ere nokarengatik; Azpeitian, Beizaman eta Errezilen, berriz, egoera ona dela diote herritarrek.


8. irudia: Hitanoaren egoera udalerrri euskaldunetan (2023):



Azkoitian jasotako erantzunak adin-tarteka sailkatuz gero, adin-tarte guztietan egoera ona edo erdipurdikoa dela uste da. Hitanoaren egoera ondoen ikusten dutenak 20 urtetik beherakoak dira. Gainontzeko adin-tarteetakoak kritikoagoak dira eta egoera erdipurdikoa dela uste dute.


⁸ Eranskina IV

9. irudia: Hitanoaren egoeraren pertzepzioa Azkoitian, adin-tarteka eta ehunekotan (2023):




Generoari erreparatuz, hitanoa gizonezkoen artean da nagusi bai Azkoitian (% 84) eta baita udalerrri euskaldunetan ere (% 78). Gizonezkoek eta emakumezkoek berdin erabiltzen dutela uste dutenen ehunekoak antzekoak dira, eta ezberdintasun handiena emakumezkoen hitanoaren erabileran dago: Azkoitian % 4k bakarrik uste du emakumezkoek ez dutela erabiltzen eta udalerrri euskaldunetan, berriz, % 11k. Beraz, Azkoitian, emakumezkoek gehiago hitz egiten dute hika, orokorrean, udalerrri euskaldunekin alderatuz.

10. irudia: Hitanoaren erabilera, generoaren arabera, Azkoitian eta udalerrri euskaldunetan, ehunekotan (2023):



Azkoitiko kasuari gehiago erreparatuz, hitanoa generoaren arabera zenbat erabiltzen den jaso da, adin-tarteka. Adin-tarte guztietan uste da gizonezkoen artean gehiago erabiltzen dela hitanoa. Ezberdintasun handiena 60-70 adin-tartean dago, izan ere % 40k baino gehiagok uste du berdinean egiten dutela gizonezkoek zein emakumezkoek. Aitzitik, gazteenek (30 urtetik beherakoek), emakumezkoek ez dutela hitanoa erabiltzen uste dute (% 7-8 inguruk).

11. irudia: Hitanoaren erabilera, generoaren arabera, Azkoitian, adin-tarteka eta ehunekotan(2023):




HITANOAREN FAMA ETA IRUZKIN NEGATIBOAK

FAMA

Hika egiteak ez du beti fama ona izan. Garai batean hizkera baldartzat hartu izan zuen zenbaitek. Hori dela eta, jendeak gaur egun zer iritzi duen eta ea iruzkin negatiborik entzun izan ote duen jakin nahi izan dugu. Azkoitiri dagokionez, % 87k uste du hitanoak fama ona duela eta % 12k bakarrik uste du gizonezkoen artean bakarrik dagoela ondo ikusia. Udalerrri euskaldunekin eta Euskal Herriko datuekin alderatzean, ordea, ezberdintasun nabariak ikus daitezke. Alde batetik, Azkoitian inork ez du erantzun hitanoa ikusezina denik. Euskal Herria kontuan hartuta, % 27k ez du hitanorik entzuten bere herrian, eta udalerrri euskaldunetan % 13k (udalerrri euskaldun batzuetan, Ondarroan edo Lekeition, adibidez, hitanoa galdua dago).

Hiru kasuetan, % 1ek bakarrik uste du hitanoak fama txarra duela.


12. irudia: Hitanoaren fama Azkoitian, udalerrri euskaldunetan eta Euskal Herrian, ehunekotan (2023):



Aipatu bezala, udalerrri euskaldun batzuetan hitanoa ez dago bizirik. Horregatik, hurrengo irudian, herri horiek alde batera utzi dira eta hitanoa bizirik dagoen herrietako datuak hartu dira, Azkoitirekin alderaketa egiteko.

Kasu honetan, hitanoaren erabilera ondo ikusia dago oro har (% 80) eta, Azkoitiko datuetara gehiago hurbiltzen den arren, % 19k uste du gizonezkoen artean bakarrik duela fama ona, Azkoitian baino 7 puntu gehiago.


13. irudia: Hitanoaren fama Azkoitian eta hitanoa bizirik dagoen udalerrri euskaldunetan, ehunekotan (2023):



IRUZKIN NEGATIBOAK


Esan bezala, zenbaitek hizkera baldartzat hartzen zuen hitanoa garai batean eta, horrekin lotuta, emakumezkoentzat ez zela aproposa ere esaten zen. Horrez gain, hitanoa lagunarterako edo gazteagoekin erabiltzeko hizkera izan da tradizionalki eta gaizki ikusita egon da adinez helduagoei edo eta klase-sozial altuagokoei egitea (gurasoak, aiton-amonak, osaba-izebak, medikuak, abokatuak, irakasleak...). Erabilera-ohitura horiek zuzen ez erabiltzeak ere ekar zezakeen iruzkin negatiborik. Inkestan, hitanoaren kontrako iruzkinik entzun ote duten galdetu denean, Azkoitian iruzkin negatibo gehiago jaso direla antzeman da. Ziurrenik, Azkoitian hika oraindik bizi-bizirik egotearekin izango du lotura datu horrek. Udalerrri euskaldunetan (eta Azkoitian) hitanoa hobeto mantendu denez, ulergarria izan daiteke hari buruzko iruzkin negatibo gehiago entzutea ere.

14. irudia: Hitanoaren kontrako iritziak entzun dituzten biztanleak, ehunekotan (2023)



Inkestako parte-hartzaileek gehien entzun duten iruzkin negatiboa (15. irudia) errespetuzko hizkera ez izatearena da (% 66-67), bai Azkoitian eta baita udalerrri euskaldunetan ere. Hitanoa ez dela emakumeentzat hizkera fina entzun dutenak % 17-18 dira eta % 11-12k hitanoa itsusia dela entzun du.

15. irudia: Hitanoaren kontrako iruzkin nagusienak, Azkoitian eta Udalerrri euskaldunetan, ehunekotan (2023):



Hauk dira parte-hartzaileek euren inguruan entzun izan dituzten iruzkin negatiboetako batzuk:

- "Kaxeroen hizkuntza" (Markina-Xemein)
- "Bastoa" (Amezketeta)
- "Ikasi ez dutenena" (Tolosa)
- "Kai-aurreko hizkuntza" (Hondarribia)
- "Herri txiki eta itxietakoa" (Segura)


Azkoitiko kasuan, ez da erantzun zehatzik jaso, baina erantzunetako batean hitanoak genero bitarra markatzen duela eta generoa bereizten duela jaso da.

TOKAREN ETA NOKAREN EGOERA

Tokaren eta nokaren egoera zein den jakiteko egindako galderen erantzunak grafiko bakarrean jaso dira, begibistako alderaketa azkar bat egin ahal izateko.

Euskal Herri mailan, tokaren egoera nokarena baino hobea dela erakusten dute emaitzek. Datuen arabera, % 5ek bakarrik uste du nokaren egoera ona dela bere herrian; toka, berriz, % 24k ikusten du egoera onean. Egoera erdipurdikoa dela diotenen artean ere toka gailentzen zaio nokari. Beste muturrera joanda, noka galzorian edo galduta ikusten dutenak % 54,3 dira; tokaren kasuan, berriz, askoz gutxiago: % 23,1.


16. irudia: Tokaren eta nokaren egoeraren pertzepzioa Euskal Herrian, ehunekotan (2022):



Tokaren eta nokaren egoera oso bestelakoa da udalerrri euskaldunetan eta, batez ere, Azkoitian (17. irudia), bi kasuetan Euskal Herrikoa baino askoz hobea delako balorazioa. Tokaren egoeraren balorazioa positibotik negatibora doa bi grafikoetan; hau da, gehiengoak tokaren egoera ona dela pentsatzen du, gutxiago dira erdipurdikoa dela uste dutenak eta are gutxiago eskasa dela edo galzorian dagoela uste dutenak. Nokaren kasuan, aldiz, alderantziz gertatzen da: gutxi dira egoera onean dagoela pentsatzen dutenak (% 7 udalerrri euskaldunetan eta % 18 Azkoitian) eta erantzun gehiago jasotzen dira egoera txartzen den heinean.

Hala ere, nokaren egoera hobea da Azkoitian. Joera berdintsua izan arren, noka egoera onean edo erdipurdikoan dagoela uste dutenak % 54 dira, udalerrri euskaldunetako bikoitza (% 27). Gainera, % 1ek bakarrik uste du noka galduta dagoela eta udalerrri euskaldunetan, berriz, % 9k. Tokaren kasuan, inork ez du uste galduta dagoenik.


17. irudia: Tokaren eta nokaren egoeraren konparazioa Azkoitian eta udalerrri euskaldunetan, ehunekotan (2023):



Nokaren eta tokaren egoeraren pertzepzioa adinaren arabera zein den begiratu⁹, Azkoitian adin-tarte guztietan gailentzen da toka, eta gehienek egoera onean dagoela uste dute. Oso gutxi dira egoera eskasean dagoela uste dutenak eta ia inork ez du uste galzorian dagoenik.

Nokaren kasuan, ordea, iritziak bestelakoak dira, eta gorabehera gehiago ikus daitezke grafikoan. 60-70 adin-tartean izan ezik, beste adin-tarte guztietan daude noka galzorian dagoela uste dutenak eta badira galduta dagoela diotenak ere. 60-70 adin-tartean inork ez du galzorian ikusten noka eta, gainera, egoera onenean ikusten duen adin-tartea ere bada (% 57). Beste adin-tarteetan, oro har, nokaren egoera erdipurdikoa edo eskasa dela uste da.

18. irudia: Tokaren eta nokaren egoeraren pertzepzioa, adin-tarteka eta ehunekotan (2023):



⁹ Tokaren eta nokaren egoeraren pertzepzioa, adin-tarteka:

TOKA	<20	20-30	30-40	40-50	50-60	60-70	>70
Ona	73	61	74	69	66	43	50
Erdipurdikoa	22	35	24	28	28	43	50
Eskasa	5	4	2	3	2	14	
Galzorian					4		

NOKA	<20	20-30	30-40	40-50	50-60	60-70	>70
Ona	21	2	15	18	23	57	
Erdipurdikoa	35	15	41	41	47	14	100
Eskasa	31	50	33	32	21	29	
Galzorian	11	33	9	9	9		
Galduta	1		2				

Toka eta noka zein adinetakoek erabiltzen duten jakiteko, egoera ezberdinak planteatu dira bi kasuetarako, eta erantzunak tauletan batu dira. Tokaren kasuan, % 48k uste du mutilek gaztetxotatik edo umetatik erabiltzen dutela eta % 20k, berriz, mutilek zein neskek erabiltzen dutela gaztetxotatik. Erantzundakoen beste % 20k uste du toka 30-40 urtetik gorako gizon-emakumeek erabiltzen dutela.

19. irudia: Tokaren erabilera adin-tarteka (2023):

	Erantzunak	%
Mutilek gaztetxotatik	147	48
Mutilek zein neskek gaztetxotatik	60	20
30-40 urtetik gorako gizon-emakumeek	62	20
30-40 urtetik gorako gizonezkoek	7	2
40-50 urtetik gorako gizon-emakumeek	10	3
40-50 urtetik gorako gizonezkoek	3	1
50-60 urtetik gorako gizon-emakumeek	14	5
50-60 urtetik gorako gizonezkoek	2	1

Nokaren kasuan, % 28k uste du kontzienteki ikasi dutenek erabiltzen dutela. Erantzun posibleak ez dira aurreko taulan planteatutako berak izan, nokaren gainbehera kontuan hartu delako: nokaren transmisioan gertatutako etenaren ondorioz, ez da toka bezain modu naturalean ikasten. Askok (neska zein mutil) ahalegin berezia egin behar izaten dute noka ikasteko eta erabiltzeko. Noka egiten dutenek, normalean, toka ere egiten dute, baina alderantziz ez: ohikoa da toka bakarrik jakitea.

Gauzak horrela, noka hitz egiten duten gizon-emakumeen adina nabarmen igotzen da, tokarekin alderatuta. 30-40 eta 40-50 urtetik gorakoek erabiltzen dutela diotenak % 38 dira guztira. Tokaren kasuan, berriz, askoz lehenago hasten dira erabiltzen: % 40 dira mutilek zein neskek gaztetxotatik eta 30-40 urtetik gorakoek darabiltela diotenak.


20. irudia: Nokaren erabilera adin-tarteka (2023):

	Erantzunak	%
Neskek eta mutilek gaztetxotatik	59	19
Kontzienteki ikasi duten batzuek (tardean gazteak)	85	28
30-40 urtetik gorako gizon-emakumeek	58	19
40-50 urtetik gorako gizon-emakumeek	57	19
50-60 urtetik gorako gizon-emakumeek	36	12
60-70 urtetik gorako gizon-emakumeek	8	3

HITANOAREN TRANSMISIOA


Hitanoaren transmisioa bi bide nagusitatik egin izan da: etxean edo familian eta lagunartean edo kalean. Jasotako datuen arabera, Azkoitian, transmisioa nagusiki kalean (% 58) egiten da eta, bigarrenik, etxean (% 39). Udalerri euskaldunetan, berriz, alderantziz da, nahiz eta etxeke eta kaleko transmisioak nahiko parekatuta dauden (% 51 eta % 47). Beraz, kaleko transmisioa nabarmen altuagoa da Azkoitian. Gainera, udalerri euskaldunetako erantzunetan, % 2k ikastaroen bidez transmititzen dela uste du; Azkoitian ez da halako erantzunik jaso.

21. irudia: Hitanoaren transmisioa Azkoitian eta udalerri euskaldunetan, ehunekotan (2023)



Hitanoaren transmisio modua adinaren arabera aztertuta, guztiek nahiko erantzun antzekoak eman dituztela ikus daiteke. Eskolan ikasi dutela diotenek kopuru handiena 20 urtetik beherakoek artean aurkitzen da, eta kalean ikasi dutenena, ostera, 60 urtetik gorakoek artean.


22. irudia: Hitanoaren transmisio moduak Azkoitian, adin-tarteka eta ehunekotan (2023)



HITANOA BIZIBERRITZEKO EKIMENAK

Inkesta erantzun dutenei euren herrietan hitanoa berreskuratzeko ekimenik ba ote dagoen galdetu zaienean, udalerrri euskaldunetako lautik hiruk erantzun dute ezetz edo ez dakitela (23. irudia). Hau da, % 25ek bakarrik izan du hitanoa biziberritzeko egin izan diren ekimenen berri. Azkoitiko kasuan, ezjakintasuna handiagoa da (% 47) eta % 10ek bakarrik du hitanoa bultzatzeko ekimenen berri.

23. irudia: Hitanoa biziberritzeko ekimenen berri Azkoitian eta udalerrri euskaldunetan, ehunekotan (2023):



Erantzunak jaso diren herri guztiak kontuan izanda, 111 herritan antolatu izan da hitanoa berreskuratzeko ekintzaren bat edo beste (Hikaldia, Hikalaguna, ikastaroak, materiala...). Erantzunen arabera, Gipuzkoako herrietan antolatzen dira hitanoa biziberritzeko ekintza gehien, baina kontuan izan behar da erantzun gehien ere Gipuzkoatik jaso direla.

Azkoitian, hitanoa biziberritzeko ekimenen berri dutela erantzun dutenen artean, 33 pertsonak erantzun dute hika ikastaroak direla nagusi. Ondoren, hika bertso-saioak, hikaldia, hikalaguna eta hitanoari buruzko materialak aipatu dituzte. Bost pertsonak *Hike Eizan!* egitasmoa aipatu dute.

24. irudia: Hitanoa biziberritzeko ekimenen berri izan dutenak Azkoitian, erantzun kopuruaren arabera (2023):

Hika ikastaroak	33
Hika bertso-saioak	24
Hikaldia	24
Hikalaguna	22
Materiala (liburua, aditz-taulak...)	21
Hike eizan!	5
Ikastetxean	3


ESPERIENTZIA PERTSONALA HITANOAREKIN

HITANOAREN ERABILERA ETA EZAGUTZA-MAILA

Inkesta bi zatitan banatuta dago eta bigarrenak hitano-erabiltzaileak bakarrik hartzen ditu kontuan. Azkoitian % 90,8k erantzun du bigarren zati hori; beraz, inkesta bete dutenen gehiengoak hitanoa erabiltzen du. Euskal Herri mailako erantzunetan, bigarren zati hori % 64k erantzun du eta udalerrri euskaldunetara begira jarriz gero, % 73 izan dira hitano-erabiltzaileak. Azkoitian, beraz, hitanoaren erabilera altua dela eta herritarrek sarri erabiltzen dutela egunerokotasunean esan daiteke.


Udalerrri euskaldunetatik jasotako erantzunei erreparatuz, inkesta bete dutenen % 27k ez du inoiz erabiltzen hitanoa, haien herrietan (Oñati, Zarautz, Zaldibia...) hitanoak bizirik dirauen arren. Kontuan izan behar da beste udalerrri euskaldun batzuetan (Ondarroa, Mutriku, Lekeitio, Gernika-Lumo...) hitanoa galdua edo galzorian dagoela. Azkoitiko kasuan, aldiz, % 9k bakarrik esan du ez duela hitanoa erabiltzen eta erabiltzaileen ehuneko udalerrri euskaldunetakoaren ia bikoitza da.

25. irudia: Hitanoaren erabilera Azkoitian eta udalerrri euskaldunetan, ehunekotan (2023):




Hitanoaren ezagutza-maila neurtzeko, hitano-erabiltzaileak bakarrik hartu dira kontuan, hau da, sarri eta batzuetan erabiltzen dutenak (26. irudia). Azkoitian, ezagutza-maila ona (oso ona edo nahiko ona, inkestaren aukeretan) dutenak % 87 dira (udalerrri euskaldunetan baino % 12 gehiago) eta erdipurdi edo nahiko txarto moldatzen direnen kopurua ere udalerrri euskaldunetako baino baxuagoa da.

26. irudia: Hitanoaren ezagutza-maila Azkoitian eta udalerrri euskaldunetan, ehunekotan (2023):




Hitanoaren erabileraren inguruko datuak mapa¹⁰ batera eramatean, hitanoa sarri hitz egiten dela erantzun duten herriak gehienbat Gipuzkoan daudela ikus daiteke. Urola Erdian, herri guztietan uste dute herrian hitanoa sarri hitz egiten dela, Zestoan izan ezik.

27. irudia: Hitanoaren erabilera udalerrri euskaldunetan (2023):



Adinaren arabera sailkatuta (28. irudia), hitanoaren ezagutza-maila oso ona dutela diotenen ehuneko handiena 20 urtetik beherakoen taldean aurkitzen da (% 25) eta txikiena 30-40 tartean, % 61ekin (70 urtetik gorakoen kauan, bi erantzun bakarrik jaso direnez, ez dira kontuan hartu).

28. irudia: Hitanoaren ezagutza-maila Azkoitian, adin-tarteka eta ehunekotan (2023):



¹⁰ Eranskina V

Hitano-erabiltzaileen ia erdiak (% 46k) uste du bere ezagutza-maila erdipurdikoa dela eta beste % 41ek nahiko txarra dela. Hitanoaren ezagutza-maila kalifikatzeko orduan, beraz, % 87 nahiko kritikoa da eta % 13k bakarrik uste du hitano maila oso ona edo nahiko ona duela (29. irudia).

Aipatzekoa da ia inork (% 2k) ez duela erantzun ezagutza-maila nahiko ona duenik. Erantzunak oso maila altutik erdipurdikora pasatzen dira zuzenean.


29. irudia: Hitanoaren ezagutza-maila Azkoitian, adin-tarteka eta ehunekotan (2023):

	<20	20-30	30-40	40-50	50-60	60-70	>70	GUZTIRA
Oso ona	25	7	5	7	6	14	0	11
Nahiko ona	6	0	0	0	2	0	0	2
Erdipurdikoa	49	46	34	48	49	57	0	46
Nahiko txarra	20	46	61	45	43	29	100	41

TOKAREN ETA NOKAREN ERABILERA HIKA-HIZTUNEN ARTEAN

Hitano-erabiltzaileek toka eta noka zenbateraino erabiltzen dituzten ere jakin nahi izan da, hau da, erabilera-maiztasuna. Jasotako datuen arabera, Azkoitian bai toka eta bai noka Euskal Herri mailan baino sarriago erabiltzen direla ikus daiteke. Bien maiztasuna altuagoa da, eta gutxitan erabiltzen dituztela erantzun dutenen ehunekoak ere baxuagoak dira. Bi kasuetan, ordea, nokaren erabileraren sarritasuna baxuagoa da tokarena baino. Gainera, noka sarri eta gutxitan erabiltzen dutenen kopuruak ia parekatuta daude (% 48 eta % 46).


30. irudia: Tokaren eta nokaren erabilera, Azkoitian eta Euskal Herrian, ehunekotan (2023):



Tokaren eta nokaren erabilera adinaren arabera aztertuz gero¹¹, toka adin-tarte guztietan sarri erabiltzen dela ikus daiteke eta gutxi dira gutxitan edo inoiz ez dutela erabiltzen diotenak. Hala ere, tokaren erabilera-maiztasuna asko jaisten da 20 urtetik beherakoen artean.

Nokaren erabilera begiratzuz gero, ordea, sarri erabiltzen dutenen taldea 30 urtetik gora hasten da eta 40-70 urte bitartekoak dira sarri erabiltzen dutela diotenak. Beraz, gazteagoen artean gutxi erabiltzen da eta helduagoen artean gehiago.

31. irudia: Tokaren eta nokaren erabilera Azkoitian, adin-tarteka eta ehunekotan (2023):




¹¹ Eranskina VI: Tokaren eta nokaren erabilera-mailaren datu gordinak eta ehunekoak, adinaren arabera.

Tokaren eta nokaren erabilera-mailaren grafikoan (31. irudian), Azkoitian noka sarri erabiltzen dela jaso da. Hala ere, kontuan izan behar da, inkesta bete dutenen % 61 (4. irudia) emakumezkozat hartu dugula (beraiei noka zuzentzea nahiko luketela erantzun dutelako). Inkestaren bigarren zatian ere emakumezkoen erantzunak % 62 direnez, horrek areagotu dezakeela nokaren presentzia pentsa daiteke.

Hikagineko 1. txostenean, hika-hiztunen generoaren arabera toka eta noka zenbat erabiltzen diren jaso zen, eta Azkoitian ere gauza bera egin da, toka eta noka benetan nola erabiltzen diren ikusteko.

Hurrengo bi grafikoetan argiago ikusten da aurretik azaldu nahi izan dena. Toka sarri erabiltzen da, bai emakumezkoen artean eta baita gizonezkoen artean ere. Euskal Herriko datuetan, adibidez, gizonezkoek soilik erabiltzen dute sarri toka; Azkoitian, ostera, gizonezkoek zein emakumezkoek. Noka sarri erabiltzen duten emakumezkoak ere gehiago dira Azkoitian, baina gizonezkoen artean erabilera murriztu egiten da, nahiz eta datuak Euskal Herrikoak baino altuagoak izan. Orokorrean, noka sarri erabiltzen duten gizonezkoen kopurua antzekoa da Azkoitian eta Euskal Herrian (% 18 eta % 20), gutxitan erabiltzen dutenak % 55 dira Euskal Herrian, eta inoiz erabiltzen ez dutenak laurden bat (% 25); Azkoitian, ostera, % 8.

32. irudia: Tokaren eta nokaren erabilera, Azkoitian eta Euskal Herrian, generoaren arabera eta ehunekotan (2023):




NORI EGITEN ZAION HIKA

Hika-hiztunek hitanoa norekin erabiltzen duten jakin nahi izan da, eta, horretarako, hiru galdera ezberdin egin dira: lehenengoan, norekin erabiltzen duten jakin nahi izan da; bigarrenengan, zenbat pertsonarekin erabiltzen duten; hirugarrenengan, nork egiten dien hika, generoa kontuan izanda.

Inkesta erantzun duten azkoitiarren ia erdiak hitanoa lagunekin erabiltzen du (33. irudia). Etxeko erabilerari dagokionez, ezberdintasunak daude. Ohikoa izan da anai-arreben artean hitanoa erabiltzea eta badirudi oraindik ere ohitura horri eusten zaiola. Seme-alabei hika egitea ere ohikoa izan da, baina emaitzek erakusten dutenez, kontu hori aldatu egin da eta, hain zuzen ere, hortxe gertatu da transmisioaren etena. Gurasoei hika egitea, berriz, gaizki ikusita zegoen garai batean. Hala ere, gaur egun badira gurasoei hika egiten dietenak, gutxi batzuk izan arren (% 1). Dena dela, gertuko edozeini hika egiten dietela erantzun dutenak % 20 izan dira eta pentsa daiteke familiako edo etxeko edozein ere sar daitekeela talde horretan. Gainera, kontuan izan behar da parte-hartzaileek galdera horri erantzun bat baino gehiago emateko aukera zutela.

33. irudia: Hika-hiztunek nori egiten dioten hika Azkoitian, ehunekotan (2023):




Hitanoa zenbat pertsonarekin hitz egiten duten galdetzean, adin-tarte guztietakoek erantzun dute askorekin egiten dutela eta zenbatzea zaila dela. Zehazki esateko, % 60k (277 erantzunetatik 166k) erantzun du jende askorekin egiten duela hika. Aipatzekoa da, 20 urtetik beherakoen tartean, berdintasun bat dagoela askorekin eta 1-5 pertsonarekin bakarrik hitz egiten dutenen artean.

34. irudia: Hika-hiztunek hitanoa zenbat pertsonarekin erabiltzen duten Azkoitian, ehunekotan (2023):

	<20	20-30	30-40	40-50	50-60	60-70	>70	Guztira
1-5 pertsonarekin	24	6	6	7	5			48
6-10 pertsonarekin	9	6	1	8	3	1		28
11-20 pertsonarekin	7	3	5	7	2			24
20-30 pertsonarekin	2	2	2	1	2			9
Askorekin (zaila da kontatzea)	25	24	30	44	35	6	2	166

Hitanoa emakumezkoengandik edo gizonezkoengandik jasotzen ote duten ere jakin nahi izan da (34. irudia) eta ia erdiek (% 47) erantzun dute gizonezkoengandik gehiago jasotzen dutela. Emakumezko zein gizonezkoengandik antzera jasotzen dutela erantzun dutenak % 25 izan dira, eta beste hainbeste emakumezkoengandik gehiago jasotzen dutela esan dutenak.

35. irudia: Hika-hiztunek norengandik jasotzen duten hika Azkoitian, ehunekotan (2023):




Datuak generoaren arabera aztertzeaz gain, Euskal Herriko datuekin ere konparazioa egin da eta alderaketa horretan ezberdintasun gehiago agertu dira (36. irudia). Hasteko, kategoria bat gehitu zaio grafikoari, izan ere, Azkoitian halako erantzunik jaso ez bada ere, Euskal Herri mailan badira “gizonezkoek ez diote hika egiten” erantzun dutenak ere.

Azkoitian, emakumezko hika-hiztunen % 39k sexu bereko pertsonengandik jasotzen dutela hika erantzun dute, eta bi sexuetatik berdin jasotzen dutela esan dutenak % 36 izan dira. Gainontzekoek (% 24) gizonezkoengandik gehiago jasotzen dutela erantzun dute. Aurreko ataletan ikusi den bezala, hitanoaren egoera orokorra hobea da Azkoitian Euskal Herri mailan eta udalerrri euskaldunetan baino. Azkoitian bai toka eta bai noka gehiago erabiltzen direnez, pentsa daiteke hitanoa edozeinengandik antzera jasotzea datu horri lotuta egon daitekeela.


Gizonezkoen kasuan, ordea, Azkoitian % 53k erantzun du hika gizonezkoengandik jasotzen duela gehiago, eta soilik % 6 izan dira emakumezko zein gizonezkoengandik jasotzen dutela esaten dutenak. Gainera, gizonezkoen % 5ek erantzun du emakumeek ez dietela hikarik egiten.

36. irudia: Hitanoa norengandik jasotzen den Azkoitian eta Euskal Herrian, generoaren arabera eta ehunekotan (2023):

Azkoitian



Euskal Herrian




Euskal Herriko grafikoan joera bera ikusten da, baina hika gizonezkoengandik gehiago jasotzen dutela dioten gizonezkoen kopurua askoz ere altuagoa da Azkoitian baino (% 85 Euskal Herrian eta % 53 Azkoitian). Azkoitian bezala, Euskal Herri mailan ere gizonezkoen % 5ek aipatzen du emakumezkoek ez diotela hika egiten. Hala ere, aipatzekoa da, Azkoitian ez bezala, emakumezkoen % 4k ere esaten duela gizonezkoek ez diotela hika egiten.

ERABILERA-OHITURAK: ARAUAK ERRESPETATZEN DIREN

Hitanoa erabilera-ohitura edo “arau” batzuei lotuta egon da tradizioz eta halaxe transmititu da belaunaldiz belaunaldi. “Arau” horietako baten arabera, ez da egokia helduagoei hika hitz egitea. Lagunartean edo anai-arreben artean, ostera, ohikoa izan da. Hitanoa konfiantza dutenen artean erabiltzeko hizketa-tratamendua denez, bi lagunek elkarrekin hika egin dezakete, adinez ezberdintasun nabaria izan arren. Aldiz, badira adin bereko pertsonak elkarri hika inoiz egingo ez lioketenak.


Inkestan, hitanoaren ohiturazko arauak errespetatzen ote diren jakiteaz gain, erabiltzaileen iritzia ere jaso nahi izan da arau horien inguruan. Bai Azkoitian eta bai udalerrri euskaldunetan, % 60 inguruk (% 62k eta % 61ek) erantzun du arauak errespetatzen dituela eta beste % 30 inguruk (% 31k eta % 26k) pertsonaren arabera eta beste pertsonarekin adostuta egiten duela (adibidez, baimena eskatuta aitona-amonei, gurasoei, osaba-izebei...). Arauak errespetatzen ez dituztenak gutxiago dira Azkoitian (% 7) udalerrri euskaldunetan baino (% 13).

37. irudia: Hitanoaren ohiturazko arauak errespetatzeko joera Azkoitian eta udalerrri euskaldunetan, ehunekotan (2023):



Adinaren arabera aztertuz gero, adinean gora joanez gero, arauak gehiago errespetatzen direla ikus daiteke eta, datuen arabera, 60 urtetik gorakoek guztiz betetzen dituzte arauok. Pertsonaren arabera egiten dutenak 40 urtetik beherakoak dira gehienbat. Beraz, joera ikusita, pentsa daiteke urte batzuen buruan, adin horretakoak nagusitu ahala, joera aldatu egingo dela eta “arau” horien betetze-maila jaisten joango dela.

38. irudia: Hitanoaren ohiturazko arauak errespetatzeko joera Azkoitian, adin-tarteka eta ehunekotan (2023):



ONDORIOAK

Orokorrak

- Azkoitia izan da parte-hartzaile gehien izan dituen herria, 305 erantzunekin (partaidetza osoaren % 7,2).
- Azkoitiko biztanleria osoaren % 2,5ek eta euskaldunen % 3,5ek hartu du parte.
- Emakumezko gehiagok hartu dute parte inkestan (% 22 gehiago) gizonezkoek baino.
- Inkesta bete duten azkoitiarren % 90,82k hitanoa erabiltzen du (hau da, inkestaren bigarren zatia bete du).

Hitanoaren egoera Azkoitian

- Azkoitiko parte-hartzaileen % 95ek uste du hitanoaren egoera ona (% 40) edo erdipurdikoa (% 55) dela herrian (udalerrri euskaldunetan % 64k eta Euskal Herri mailan % 44k).
- Hitanoa gizonezkoen artean gehiago erabiltzen da (% 84).
- Emakumezkoek hitanoa gehiago erabiltzen dute Azkoitian gainerako udalerrri euskaldun gehienetan baino.
- Hitanoari buruzko iruzkin negatibo gehiago entzu(te)n dira Azkoitian udalerrri euskaldunetan eta Euskal Herri mailan baino.
- Azkoitian egoera hobean sumatzen da noka (% 54), udalerrri euskaldunetan baino (% 27).
- Nokaren kasuan, % 28k uste du herritar batzuek kontzienteki ikasi dutelako erabiltzen dutela.
- Noka hitz egiten duten gizon-emakumeen adina toka egiten dutenena baino altuagoa da: 30-40 eta 40-50 urtetik gorakoek erabiltzen dutela diote (% 38). Tokaren kasuan, berriz, askoz lehenago hasten dira erabiltzen: mutilek zein neskek gaztetxotatik eta 30-40 urtetik gorakoek darabiltela diote (% 40).
- Azkoitian kalean edo lagunartean egi(te)n da nagusiki hikaren transmisioa (% 58) eta, maila baxuagoan, etxean edo familian (% 39).
- Hitanoa biziberritzeko egiten diren ekimenen berri dakiten azkoitiarrak % 10 bakarrik dira.
- Hika-hiztunen artean, hitanoaren ezagutza-maila altuagoa da Azkoitian (% 87), udalerrri euskaldunetan baino (% 75).
- Hika-hiztunen artean, tokaren eta nokaren erabilera Euskal Herri mailakoa baino altuagoa den arren, Azkoitian ere nokaren erabilera baxuagoa da tokarena baino.

- Toka adin-tarte guztietan sarri erabiltzen da. Noka, berriz, 30-40 urtetik aurrera hasten da sarriago erabiltzen.
- Hika lagunekin (% 48) eta gertuko edozeinekin (% 20) erabiltzen da gehienbat Azkoitian.
- Azkoitian gizonezkoengandik gehiago jasotzen da hika (% 47), emakumezkoengandik baino (% 25).
- Azkoitian gizonezkoek gehiago erabiltzen dute hika beraien artean (% 53), emakumezkoek beraien artean baino (% 39).
- Azkoitian % 62k hitanoaren erabilera-arauak errespetatzen ditu eta soilik % 7 da arauak errespetatzen ez dituenak.

ERANSKINAK

ERANSKINA I: Inkesta-eredua

HITANOAREN ERABILERA

INKESTA HONEN HELBURUA: EUSKAL HERRIAN HIKAREN EGOERA ZEIN DEN EZAGUTZEA, BIZIRIK DAGOEN HERRIETAN. DIAGNOSIA EGINDA, ERRAZAGOA IZANGO DA BIZIBERRITZEA.

LAGUNARTEKO HIZKERA HAU HAINBAT MODUTARA EZAGUTZEN DA: HI ESATEA, HITANOA, HIKA, HIKETA, TOKANOKA, TOKETANOKETA, EZTOKBADOK, EZTONABADONA, TO ETA NO, HITATOA...

5 MINUTU BAINO GUTXIAGO IZANGO DIRA. **LAGUNDUKO DIGUZU?**

INKESTAKO GALDERAK

Herria

Adina

20 baino gutxiago

20-30

30-40

40-50

50-60

60-70

70etik gora

Nongoa zara?

Kalekoa

Baserrikoa

Nahasketa bat

Zuri nola zuzentzea nahiko zenuke?

Noka (emakumeei egiten zaiena)

Toka (gizonezkoei egiten zaiena)

HITANOARI BURUZKO GALDERA OROKORRAK (1. Zatia)

Hitanoaren egoera zure herrian

- Ona (bizirik dago eta toka-noka erabiltzen da)
- Erdipurdikoa (erabiltzen da, baina mutilen artean batez ere)
- Eskasa (gutxi erabiltzen da; adinekoen artean batez ere)
- Desagertzeko zorian (ez da entzuten ia; oso gutxik dakite)

Ondo ikusia al dago?

- Bai
- Bai, baina gizonezkoen artean bakarrik
- Ez, fama txarra du
- Ez ondo eta ez gaizki: ikusezina da

Erabilera kalean eta baserri giroan

- Bietan nahikotxo
- Bietan galzorian
- Baserri giroan gehiago

Erabilera emakumezkoen eta gizonezkoen kasuan

- Berdin
- Gizonezkoek gehiago emakumezkoek baino
- Emakumezkoek ez dute erabiltzen

Tokaren egoera

- Ona
- Erdipurdikoa
- Eskasa
- Galzorian
- Beste bat idazteko aukera

Zer adinetakoek erabiltzen dute toka? (bat baino gehiago aukera daitezke)

- Mutilek gaztetxotatik
- Mutilek zein neskek gaztetxotatik
- 30-40 urtetik gorako gizonezkoek
- 30-40 urtetik gorako gizon-emakumeek
- 40-50 urtetik gorako gizonezkoek
- 40-50 urtetik gorako gizon-emakumeek
- 50-60 urtetik goirako gizonezkoek
- 50-60 urtetik gorako gizon-emakumeek
- Beste bat idazteko aukera

Nokaren egoera

- Ona
- Erdipurdikoa
- Eskasa
- Galzorian
- Galduta

Zer adinetakoek erabiltzen dute noka?

- Neskek eta mutilek gaztetxotatik
- Kontzienteki ikasi duten batzuek (tartean gazteak)
- 30-40 urtetik gorako gizon-emakumeek
- 40-50 urtetik gorako gizon-emakumeek
- 50-60 urtetik gorako gizon-emakumeek
- 60-70 urtetik gorako gizon-emakumeek
- Beste erantzun bat idazteko aukera

Transmisioa nola egiten da?

- Etxean, familian
- Kalean, lagunartean
- Eskolan ikasita
- Euskaltegian, ikastaroen bidez
- Esango nuke ez dagoela transmisiorik
- Beste erantzun bat idazteko aukera

Entzun/ezagutu al duzu hitanoaren kontrako iruzkinik edo jarrerarik?

Bai, hitanoa itsusia dela

Bai, hitanoa ez dela emakumeentzat (ez delako hizkera fina)

Bai, ez dela errespetuzkoa

Bai, hika ez hitz egiteko esan didate

Ez

Beste erantzun bat idazteko aukera

Ba al dago hitanoa biziberritzeko interesik/gogorik herrian?

Bai

Ez bereziki

Ez dakit

Ba al dago hitanoa berreskuratzeko ekimenik martxan herrian?

Bai

Ez

Ez dakit

Baietz bada, zer?

Hika ikastaroak

Hikalaguna

Hikaldia

Materiala (liburua, aditz-taulak...)

Hika bertso-saioak...

Beste erantzun bat idazteko aukera

Entzuten al duzu hika inguruan?

Inoiz ez

Gutxitan

Sarri

Erabiltzen al duzu hitanoa? (erantzun loteslea: 'inoiz ez' erantzuten duena ez da 2. zatira pasatzen)

Inoiz ez

Batzuetan

Sarri

ESPERIENTZIA PERTSONALA HITANOAREKIN (2. zatia)

Zure hitanoaren ezagutza-maila

Oso ona

Nahiko ona

Erdipurdikoa

Nahiko txarra

Erabiltzen duzu toka?

Sarri

Inoiz ez

Gutxitan

Beste aukera bat

Erabiltzen duzu noka?

Sarri

Inoiz ez

Gutxitan

Beste aukera bat

Nola ikasi zenuen hika?

Etxean entzunda, familiarekin

Kalean, lagunartean

Eskolan

Ikastaro batean, hikalagunekin...

Nire kabuz

Beste aukera bat

Nori egiten diozu hika?

Anai-arrebei

Seme-alabei

Lagunei (eta hikalagunei)

Gertuko egiten zaidan edozeini

Alabari

Semeari

Ahizpari/arrebari

Anaiari/nebari

Zenbat pertsonarekin egiten duzu hika?

15

6-10

11-20

20-30

Askorekin (zaila da kontatzea)

Beste aukera bat

Nork egiten dizu hika?

Emakumezkoek eta gizonezkoek berdin

Emakumezkoek gehiago

Gizonezkoek gehiago

Emakumezkoek ez didate hika egiten

Gizonezkoek ez didate hika egiten

Beste aukera bat

Errespetatzen al dituzu ohiturazko arauak?

Bai

Ez

Pertsonaren arabera

Beste aukera bat

ERANSKINA II

Inkesta erantzun dutenen herrien zerrenda, probintziaka:

ARABA	
Heria	Erantzunak
Agurain	2
Aramaio	25
Gasteiz	37
BIZKAIA	
Abadiño	12
Abanto Zierbena	1
Amorebieta-Etxano	49
Arantzazu	1
Areatza	3
Armintza	1
Arrankudiaga (Zollo 1)	7
Arratzu	1
Arrigorriaga	1
Artea	4
Artzentales	1
Astrabudua (Erandio)	1
Atxondo	6
Aulesti	23
Bakio	2
Balmaseda	3
Barakaldo	7
Basauri	5
Bedia	4

Bermeo	13
Berriatua	1
Berriz	3
Bilbo	80
Busturia	1
Derio	3
Dima	18
Durango	38
Ea	6
Elorrio	38
Erandio	1
Ermua	13
Etxebarria	8
Forua	1
Fruiz	5
Galdakao	35
Garai	3
Gatika	1
Gautegiz Arteaga	1
Gernika-Lumo	26
Getxo (Algorta 5)	26
Gizaburuaga	1
Gordexola	2
Gorliz	4
Ibarruri	1
Igorre	19
Iurreta	6
Izurtza	1
Kortezubi	1
Larrabetzu	19
Laudio	4
Leioa	8

Lekeitio	15
Lemoa	7
Lemoiz	1
Lezama	5
Loiu	1
Mallabia	9
Mañaria	5
Markina-Xemein	16
Mendexa	4
Meñaka	3
Morga	1
Mundaka	1
Mungia	12
Munitibar	2
Murueta	1
Muxika	2
Ondarroa	15
Orozko	5
Ortuella	1
Otxandio	5
Plentzia	2
Portugalete	3
Santurtzi	2
Sestao	2
Sondika	4
Sopela	2
Trapagaran	1
Ugao-Miraballes	4
Urduliz	2
Usansolo	9
Zaldibar	8
Zalla	2

Zamudio	3
Zeanuri	10
Zeberio	2
Ziortza-Bolibar	2
GIPUZKOA	
Abaltzisketa	17
Aduna	7
Aia	16
Aizarnazabal	6
Albiztur	3
Alegia	43
Alkiza	3
Altzaga	8
Altzo	13
Amasa-Villabona	49
Amezketeta	20
Andoain	44
Anoeta	31
Antzuola	20
Arama	1
Aretxabaleta	31
Arrasate	114
Asteasu	24
Astigarraga	16
Ataun	34
Azkoitia	304
Azpeitia (Urrestilla 3)	140
Baliarrain	6
Beasain	54
Bedaio	2

Beizama	5
Belauntza	2
Berastegi	12
Bergara	94
Berrobi	4
Bidania-Goiaz	2
Deba (Itziar 4)	19
Donostia	231
(Añorga 5, Altza 5, Zubieta 4, Igeldo 13)	
Eibar	105
Elduain	2
Elgeta	8
Elgoibar	28
Errenteria	52
Errezil	24
Eskoriatza	52
Ezkio-Itsaso (6 Ezkio, 1 Itsaso)	7
Gabiria	15
Gaintza	1
Gaztelu	1
Getaria	36
Hernani	83
Hernialde	6
Hondarribia	46
Ibarra	30
Idiazabal	34
Ikaztegieta	4
Irun	50
Irura	9
Itsasondo	1
Larraul	5
Lasarte-Oria	38

Lazkao	20
Leaburu	3
Legazpi	33
Legorreta	19
Leintz-Gatzaga	3
Lezo	18
Lizartza	5
Mendaro	20
Mutiloa	2
Mutriku	11
Oiartzun	73
Olaberría	1
Oñati (Araotz 3)	84
Ordizia	38
Orexa	10
Orio	74
Ormaiztegi	10
Pasaia (10 Donibane eta 2 San Pedro)	24
Segura	24
Soraluze	12
Tolosa	106
Urnieta	22
Urretxu	23
Usurbil	43
Zaldibia	47
Zarautz	188
Zegama	12
Zerain	2
Zestoa (Aizarna 6)	26
Zizurkil	19
Zumaia	73
Zumarraga	15

LAPURDI

Angelu	2
Azkaine	8
Baiona	4
Bardoze	1
Beskoitze	1
Donibane Lohitzune	5
Ezpeleta	2
Hazparne	1
Hendaia	13
Itsasu	2
Larresoro	1
Lekorne	1
Luhuso	1
Mugerre	1
Sara	2
Senpere	3
Uztaritze	3
Ziburu	3
Urruña	1

NAFARROA BEHEREA

Ainhize-Monjolose	2
Anhauze	1
Baigorri	1
Behauze	1
Bidarraia	1
Donapaleu	1
Donibane Garazi	2


Eiheralarre	1
Gamarte	1
Garruze	1
Heleta	1
Irulegi	1
Larzabale	1
Ortzaize	1
Suhuskune	1
Urepele	2
ZUBEROA	
Gotaine	1
Lexantzü	1
Maule	3
Ozaze-Zühara	2
NAFARROA	
Altsasu	3
Amaiur	2
Antsoain	2
Araitz	1
Arano	4
Arantza	4
Arbizu	28
Areso	1
Arizkun	1
Arrarats (Basaburua)	1
Arruazu	1
Atarrabia	2
Aurizperri	1

Aurtitz	1
Auza (Ultzama)	1
Azkarate	1
Azpilikueta	1
Bakaiku	1
Barañain	4
Baztan	1
Bera	14
Berriozar	1
Beruete	2
Betelu	1
Burlata	4
Doneztebe	5
Dorrao (Ergoiena)	2
Egillor (Ollaran)	3
Elizondo	7
Eltzaburu	1
Erratzu	2
Etxalar	3
Etxaleku	1
Etxarri Aranatz	7
Gartzain (Baztan)	3
Goizueta	6
Gorriti	1
Igantzi	3
Ilarratz	1
Iragi	1
Irañeta	1
Iruñea	48
Irurtzun	2
Ituren	2
Kaseda	2

Larraun (Oderitz 1)	2
Legasa	1
Leitza	21
Lekaroz	1
Lekunberri	4
Lesaka	10
Lizoainibar-Arriasgoiti (Iheltz 1)	1
Mezkiritz (Iruñea)	1
Murtxante	1
Orbaizeta	1
Ornoz-Mugaire (Baztan)	2
Ororbia	1
Sarriguren	2
Sunbilla	3
Tafalla	2
Tutera	4
Uharte-Arakil	3
Urdazubi	2
Urritza (Imotz)	1
Urrotz	1
Zilbeti	1
Ziordia	2
Zizur Nagusia	2
Zizur Txikia	2
Zubieta	3

ERANSKINA III

Hikagin proiektuko inkestan parte hartu duten udalerrien mapa:




*EuskalGeo (Gaindegia) ataritik lortutako datu geografiko espazialen arabera

Udalerri euskaldunen zerrenda (UEMAREN arabera)					
ARABA	GIPUZKOA		BIZKAIA		NAFARROA
Aramaio	Abaltzisketa	Hernani	Ajangiz	Ibarrangelu	Araitz
	Aduna	Hernalde	Amoroto	Igorre	Arano
	Aia	Hondarribia	Arantzazu	Ispaster	Arantza
	Aizarnazabal	Ibarra	Areatza	Izurtza	Arbizu
	Albiztur	Idiazabal	Arrankudiaga-Zollo	Kortezubi	Areso
	Alegia	Ikaztegieta	Arratzu	Larrabetzu	Arruazu
	Alkiza	Irura	Arrieta	Lekeitio	Basaburua
	Altzaga	Itsasondo	Artea	Lezama	Baztan
	Altzo	Larraul	Atxondo	Mallabia	Beintza Labaien
	Amezketza	Lazkao	Aulesti	Mañaria	Bera
	Anoeta	Leaburu	Bakio	Markina-Xemein	Bertizarana
	Antzuola	Legorreta	Bermeo	Maruri-Jatabe	Betelu
	Arama	Leintz-Gatzaga	Berriatua	Meñaka	Donamaria
	Aretxabaleta	Lezo	Busturia	Mendata	Doneztebe
	Asteasu	Lizartza	Dima	Mendexa	Elgorriaga
	Astigarraga	Mendaro	Ea	Mundaka	Ergoiena
	Ataun	Mutiloa	Elantxobe	Munitibar	Etxalar
	Azkoitia	Mutriku	Ereño	Murueta	Etxarri-Aranatz
	Azpeitia	Oiartzun	Errigoiti	Muxika	Ezkurra
	Baliarrain	Oñati	Etxebarria	Nabarniz	Goizueta
	Beizama	Orendain	Forua	Ondarroa	Igantzi
	Belauntza	Orexa	Fruiz	Orozko	Imotz
	Berastegi	Orio	Gamiz-Fika	Otxandio	Ituren
	Bergara	Ormaiztegi	Garai	Sukarrieta	Larraun
	Berrobi	Segura	Gatika	Ubide	Leitza
	Bidania-Goiatz	Tolosa	Gautegiz Arteaga	Zeanuri	Lekunberri
	Deba	Urretxu	Gernika-Lumo	Zeberio	Lesaka
	Elduain	Usurbil	Gizaburuaga	Ziortza-Bolibar	Oiz
	Elgeta	Villabona			Saldias
	Eratsun	Zaldibia			Sunbilla
	Errezil	Zarautz			Urdazubi
	Ezkio-Itsaso	Zegama			Urdiain
	Gabiria	Zerain			Zubieta
	Gaintza	Zestoa			Zugarramurdi
	Gaztelu	Zizurkil			
	Getaria	Zumaia			

Udalerrri euskaldunen zerrenda (GAINDEGIaren arabera)								
ARABA	GIPUZKOA		BIZKAIA		NAFARROA	NAFARROA BEHEREA	ZUBEROA	LAPURDI
Aramaio	Abaltzisketa	Getaria	Ajangiz	Ibarrangelu	Arano	Ainhize-Monjolose	Altzai-Altzabeheti-	
	Aduna	Hernalde	Amoroto	Igorre	Arantza	Aintzila	Zunharreta	
	Aia	Hondarribia	Arantzazu	Ispaster	Arbizu	Arhantsusi	Arrokiaga	
	Aizarnazabal	Ibarra	Areatza	Izurtza	Areso	Behorlegi	Atharratze-	
	Albiztur	Idiazabal	Arratzu	Kortezubi	Arruazu	Buztintze-Hiriberri	Sorholüze	
	Alegia	Ikaztegieta	Arrieta	Larrabetzu	Basaburua	Duzunaritze-Sarasketa	Barkoxe	
	Alkiza	Irura	Arteaga	Lekeitio	Baztan	Eiheralarre	Bunuze	
	Altzaga	Itsasondo	Atxondo	Lemoiz	Beintza Labaien	Ezterenzubi	Larraine	
	Altzo	Larraul	Aulesti	Lezama	Bera	Hozta	Mendikota	
	Amezketta	Lazkao	Bermeo	Mallabia	Bertizarana	Ibarrola	Muskildi	
	Anoeta	Leaburu	Berriatua	Mañaria	Betelu	Izpura	Urdatx	
	Antzuola	Legorreta	Busturia	Markina-Xemein	Donamaria	Jatsu		
	Arama	Leintz-Gatzaga	Dima	Maruri-Jatabe	Donazaharre	Lakarra		
	Aretxabaleta	Lizartza	Ea	Mendata	Doneztebe	Landibarre		
	Asteasu	Mendaro	Elantxobe	Mendexa	Elgorriaga	Larزابale-Arroze-Zibitze		
	Astigarraga	Mutiloa	Elorrio	Meñaka	Ergoiena	Zaro		
	Ataun	Mutriku	Ereño	Mundaka	Etxalar			
	Azkoitia	Oiartzun	Errigoiti	Munitibar	Etxarri-Aranatz			
	Azpeitia	Oñati	Etxebarría	Murueta	Ezkurra			
	Baliarrain	Orendain	Forua	Muxika	Goizueta			
	Beizama	Orexa	Fruiz	Nabarniz	Ituren			
	Belauntza	Orio	Gamiz-Fika	Ondarroa	Larraun			
	Berastegi	Ormaiztegi	Garai	Orozko	Leitza			
	Bergara	Segura	Gatika	Otxandio	Lekunberri			
	Berrobi	Tolosa	Gautegiz Arteaga	Sukarrieta	Lesaka			
	Bidania-Goiatz	Usurbil	Gernika-Lumo	Ubide	Luzaide			
	Deba	Villabona-Amasa	Gizaburuaga	Zeanuri	Oiz			
	Elduain	Zaldibia		Zeberio	Saldias			
	Elgeta	Zarautz		Ziortza-Bolibar	Sunbilla			
	Eratsun	Zegama			Uharte Garazi			
	Errezil	Zerain			Urdazubi			
	Ezkio-Itsaso	Zestoa			Urdiain			
	Gabiria	Zizurkil			Urroz			
	Gaintza	Zumaia			Zubieta			
	Gaztelu				Zugarramurdi			

ERANSKINA IV

Hitanoaren egoeraren pertzepzioa, inkesta erantzun duten udalerrri euskaldunetan:




Zein herri euskaldunetakoek uste dute hitanoaren egoera ONA dela herrian?						
ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	NAFARROA	NAFARROA BEHEREA	ZUBEROA	LAPURDI
	Aizarnazabal Alkiza Azpeitia Beizama Elduain Errezil Hernialde Orexa	Garai	Arano			

Zein herri euskaldunetakoek uste dute hitanoaren egoera ERDIPURDIKOA dela herrian?							
ARABA	GIPUZKOA		BIZKAIA	NAFARROA	NAFARROA BEHEREA	ZUBEROA	LAPURDI
	Abaltzisketa Aduna Aia Albiztur Alegia Altzo Amezketeta Anoeta Antzuola Arama Asteasu Ataun AZKOITIA Baliarrain	Berastegi Berrobi Ezkio- Itsaso Gabiria Getaria Idiazabal Irura Larraul Lazkao Leaburu Lizartza Oiartzun Oñati	Orendain Orio Segura Usurbil Villabona-Amasa Zaldibia Zarautz Zegama Zerain Zestoa Zizurkil Zumaia	Atxondo Aulesti Dima Etxebarria Forua Mallabia Otxandio Zeanuri	Arantza Arbizu Areso Etxalar Goizueta Igantzi Ituren Leitza Sunbilla Urrotz		

ERANSKINA V

Hitanoaren erabilera, inkesta erantzun duten herri euskaldunetan:



Zein herri euskaldunetakoek erantzun dute hitanoa SARRI erabiltzen dutela?

ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	NAFARROA	NAFARROA BEHEREA	ZUBEROA	LAPURDI
	Aia	Bidania-Goiatz	Artea	Goizueta	Ainhize-Monjolose	
	Aizarnazabal	Errezil	Mallabia		Eiherelarre	
	Albiztur	Ezkio-Itsaso	Ziortza-Bolibar		Larزابale-Arroze-Zibitze	
	Alegia	Gabiria				
	Altzo	Getaria				
	Amezketeta	Ibarra				
	Anoeta	Idiazabal				
	Antzuola	Lizartza				
	Arama	Orendain				
	Asteasu	Segura				
	Ataun	Usurbil				
	AZKOITIA	Zaldibia				
	Azpeitia	Zarautz				
	Baliarrain	Zerain				
	Beizama	Zumaia				
	Berrobi					

ERANSKINA VI

Tokaren eta nokaren erabilera-mailaren datu gordinen eta haien ehunekoak taulak.

HIKA-HIZTUNEN TOKAREN ERABILERA ADIN-TARTEKA:

Erantzun gordinak:

	Sarri	Gutxitan	Inoiz ez	Guztira
20 urte baino gutxiago	34	28	7	69
20-30 urte	31	8	2	41
30-40 urte	36	6	2	44
40-50 urte	57	8	2	67
50-60 urte	39	8		47
60-70 urte	5	1	1	7
70 urtetik gora	2			2

Ehunekotan:

	Sarri	Gutxitan	Inoiz ez	Guztira
	49	41	10	100
	76	20	5	100
	82	14	5	100
	85	12	3	100
	83	17		100
	71	14	14	100
	100			100

HIKA-HIZTUNEN NOKAREN ERABILERA ADIN-TARTEKA:

Erantzun gordinak:

	Sarri	Gutxitan	Inoiz ez	Guztira
20 urte baino gutxiago	13	47	9	69
20-30 urte	10	28	3	41
30-40 urte	21	20	3	44
40-50 urte	50	17		67
50-60 urte	32	13	2	47
60-70 urte	5	2		7
70 urtetik gora	2			2

Ehunekotan:

	Sarri	Gutxitan	Inoiz ez	Guztira
	19	68	13	100
	24	68	7	100
	48	45	7	100
	75	25	0	100
	68	28	4	100
	71	29	0	100
	100	0	0	100